


BALOREZKO PROPOSAMENA

Dakigunez, 2008an Euskal Herri mailan biztanleriaren %8.5 beste pertsona batetiko dependentzia maila bat zuen mugimendu arazoak zituelako. Emaitza honekin ateratako konklusioa honakoa da; 2008tik aurrera, gero eta pertsona gehiago daude mugimendu arazoak dituztenak, eta horregatik, beste batzuen laguntza behar dute eguneroko bizitzan. Arazo honi konponbide bat eman nahi diogu gure produktuaren bidez.



Gure produktu inobatzailea mugimendu arazoak dituzten pertsoneri independentzia maila bat izateko aukera eman nahi diegu. Produktua honetan datza: ospitaleko ohe baten itxura duen ohe bat da, gurpildun aulkia barne duena. Honen bidez, gure bezeroa ohean egoteaz gain, laguntza gutxiago batekin, aulkira pasa daiteke eta beste toki batzuetara joateko aukera izango du.

Honetaz gain, zahar egoitzetako langileengan pentsatu dugu, eta gure produktuari esker lana erraztea nahi diegu. Ohe honi esker, langileek ez dute bertako zaharren gorputz pisutsuak altxatu beharko. Langileen osasunerako garrantzitsua izango da.

Produktua guztiontzat eskuragarria izateko, prezio egoki bat jarriko diogu. Honetaz gain, gure produktua ez da ospitaletan eta zahar egoitzetan soilik finkatuko. Hau da, edozein etxetan aurkitu ahal izango dugu produktua. Hala ere, gure promozioak ospitaletara eta egoitzetara bidaliko ditugu, bertan beharra izango duten pertsonak daudela dakigulako. Pentsatu nahi dugu, ospitaleetatik eta egoitzetatik kanpo dauden bezeroak ospitalera joango direla produktuaz galdezka, eta hemengoek guregana bidaliko dituztela.

BIBLIOGRAFIA:

<http://www.ine.es/prensa/np524.pdf>